

Arruazuko gabon-kanta zaharra

JOSE MARI SATRUSTEGI *


A maitzera doan mende honetan aldakuntza nabarmena ezagutu dute Euskal Herriko Gabon ospakizunek. Nik neure aita eta amari entzunagatik dakit Arruazun, beste herri euskaldun askotan bezala, artzai giroko meza edo *pastorela* zutela gauerdiko mezaren saltsa pizgarria. Artzai-jantziekin neska mutilak zaldabai eta kriskitin doinu alaiekin parte hartzen zuten Jesus Haurraren jaio-tzako festa buruan. Mende honen lehen laurdenean bizirik zegoela ohitura hori herrian esan daiteke zalantzarik gabe. Ez da beraz aspaldiko denboretako kontua. Irrintzi alaiekin batera, herri bakoitzak sortutako bertso sortekin betetzen zuten argitasun pozgarritz negu gogor haietako elurrarekin batera krisailu eta makilaz hornitutako ibiltarien itzala. Neuk entzun izan nituen etxean orduko doinuak, ni jaio aurretik galdu bazen ere Gabon gauerdiko festa herrikoia.

Musika berezia eta larruzko zaldabaien erritmoa zen eguberri giroko festaren ezaugarri nagusia. Mezako atal ohikoak latinez izan arren, urte gutxian entzuten ez zen dantza giroan abesten zuen jendeak elizan. Eskuz astindutako larruen uztaiek bazituzten metalezko txapa txintxinlariak gau isilari ahots zaratatsua emateko.

Ohitura honen inguruan herri-jakintzaren altxor aberatsa galdu du gure herriak. Ez zen dena latin ulergaitzen errepikapen hutsa. Bazen euskal kantuentzat tokirik eta betiko bilantziko ezagunekin batera urterik-urte besterik ere. Ez elizan bakarrik. Handik aterata etxez etxe ibiltzen zen jende gaztea aurrez borobildutako kopla eta bertso berriak haize hotzaren ezpainetan murtxikatuz gauak irensteko.

Ospakizuna galtzean, ahoz aho emandako kantuen ondarea ere galdu da neurri handi batean pertsona helduen begitartea itzaltzearekin batera. Euskal Herria horrela herri-jakintzaren atal berezi honetan hustutzen joan da. Eta kantuen edukia baino gehiago, herri bakoitzaren hizkuntza eredu eta bertako emaitza berezia izango zitzaigun orain baliagarria. Izan ere, ez

* Euskaltzaindia.



zaigu herri-literatura gehiegirik gelditu hain emankorrak izandako ohianen basamortuan.

Hori dela eta arretaz jasotzen ditugu han-hemenka papera zaharren artean aurkitutako eskuizkribuak. Noizbait kantari batek bere baliamenturako jasotako testuak denon estimuko aurkipen bihurtzen dira uste gabe. Zorritzarrez, letraren anima, arnasa eta apaindura den doinua edo musika biltzerik ez dago.

Gabon giroko kantu haietakoa zatekeen Arruazun aurkitutako *Gabon-kanta zaharra*. Sukaldeko kean gorriturik dago liburuskat moduan jositako eskuizkribua, eta *Maria Joakina Ganboak* jaso du *Argiñeneko* bere sortetxean. Honela dio:

1. Jachizeiteste bera
or goico arzaia,
atozte jaquitera
Belengo berriyac:
Gaberdi vada ere
Belengo ..mendia
arguiari estalduric
dago bay guztia.
2. Choba triste batean
Jesus gaur jaioric
otzac pasatu ez dezan
lastoz estalduric:
Miragarrizko gauza
dena izanican
munduan arquicen da
guizonagatican.

3. Gambela humil batean
ausen den gaiena
bere Ama mareac
senticen duena:
Besuac zabalduric
guizonaren deyes
daguala guztia
buztiric negarrez.
4. Beztidure humilles
nolabait bilduric
arcen du bere amac
erruquiz beteric:
Suspiro malcoac
ditu alibio
asa erdigalduan
itz eguiten dio:
5. Norc nere seme ona
ote du viotcic
orrela zu icusteco
erruqui gaberico:
Larru gorri bician
tirita zu otzac
ecin sufritu zaitu
neronen viotzac.
6. Estadu triste ori
zerana izanic
ezta ponderazeco
icusi gabetanic.
Viotz baten ordean
milla banituque
guztiac zuretaco
izango liraque.
7. Orrenbeste edertasun
chabola orretan
norc sinestalezaque
gure egunetan;
Aingueruen vicitza
guizonen baquea
itz guchitan lurrean
Ceruco errequia
8. Ardi galduen billa
nere Jesus pollita
cerutic bera zatoz
orren estalita:

Zure Magestadeac
arritu ez gaizan
lasto artean zaude
aurcho eguinican.

9. Baña pobreac gana
etorri bazera
eta biotz humillac
Jauna sendacera:
Nere pobretasunas
ezta cer arritu
bada zure pobrezac
era-custen digu.

10. Gusto baldin badezu
atoz bai nerequin
aurcho zoragarria
aita, ta amarequin:
Alimentu humil bat
ez zaizu faltaco
ez ere laguncho bat
entreteniceco.

11. Agur aurcho polita
gure ondasuna
agur bada Maria,
agur Jossé ona:
Agur izar ederrac
ez aztu gugatic
bedica gaizazute
len bai len Cerutic.

Azken orrian dator idazlearen izena, *soy de Pedro Francisco Gamboa* diolarik erdaraz idatzitako hitz bakarretan. Egilea ala kopiatzaile ote? Zenbat halako ez zen galduko gure etxeetan? *Fontes Linguae Vasconum* zenbaki hone-tan ohorezko tokitxo bat egin zaio herri xumearen emaitza apalari.

LABURPENA

Agertu berria den Gabon kanta zahar honi sarrera eman zaio aldizkaria-ren urte amaierako zenbakian, galtzen joan diren bilantzikoen lekuko. Es-kuizkribua Sakana Arruazukoa da, mende hasieran eta geroago ere zaldabai eta kriskitin doinuekin abesten ziren gauerdiko mezan Jesus Haurraren jaio-tza ospatzeko. Meza bera ere latinez izan arren *Pastorela* izeneko artzai-giro-koa izan ohi zen beste toki askotan bezala.

RESUMEN

Coincidiendo con el último número del año se ha dado cabida en la re-vista a este villancico popular de Navidad recientemente localizado en

Arruazu. En las primeras décadas de este siglo se conservaba todavía en el pueblo la costumbre de festejar la nochebuena con misa de medianoche al ritmo de panderetas, castañuelas y atuendo de pastores, como era habitual en muchos lugares. El texto viene a ser un testimonio de cantos que han ido desapareciendo.

RÉSUMÉ

Comme il s'agissait du dernier numéro de l'année, on a trouvé une place dans la revue pour ce Chant de Noël populaire, récemment localisé à Arruazu. Dans les premières décades de ce siècle, le village conservait encore la coutume de célébrer la veille de Noël avec une messe de minuit au rythme des tambours de basque, castagnettes et vêtements de berger, comme il était normal dans beaucoup d'endroits. Le texte est un témoignage de chants qui ont petit à petit disparu.

ABSTRACT

In the last edition of the year space was given over to this popular Christmas carol recently found in Arruazu. The custom of celebrating Christmas Eve with a midnight mass to the music of tambourines and castanets and dressed in shepherd's garb, as was habitual in many places, was preserved in this village up until the first decades of this century. The text represents a testimony to the songs which have gradually disappeared over time.